

GOBERNU BATZARRA

2016. 05. 23

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita hiruan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso	
	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Tolosako Bizikidetza Foroaren 2015eko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.
	3.- Iurramendi Egoitza. Apirileko faktura.
	4.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
	5.- Hondakin bilketa tasa. Hobariaren eskaerak. Alokairuan.
	6.-Sanjoanak. Egitaraua eta aurrekontua.
	7.-Nerabeen balioanitzeko zerbitzua kontratatzeke baldintza plegua.
	8.- Bidaiaren txokoa.
	9.-Udaltzaingoko bost plaza betetzeko deialdia onartzea.
	10.-15/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko maiatzaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako Bizikidetza Foroaren 2015eko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.

Tolosako Bizikidetza Foroak 1.724,25 euroko dirulaguntza eskaera luzatu zion Udalari 2015ean burututako ekintzekin lotuta.

Udalak abenduaren 21ean egindako Gobernu Batzarraren eskatutako dirulaguntza ematea erabaki zuen.

Aurtengo maiatzaren 6an Tolosako Bizikidetza Foroak dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa aurkeztu du. Balantze ekonomikoaren arabera, 1.545,89 euroko gastuak justifikatzen dutenez, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. 1.545,89 euroko dirulaguntza ematea Tolosako Bizikidetza Foroari gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

3.- Iurramendi Egoitza. Apirileko faktura.

Iurreamendi egoitzak apirileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea apirileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **16.738,38** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 628,80 €

Elbarrien defizita: 16.109,58 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG n.º 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2015eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, eta 2016ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errenergua mantentzea erabaki zen aipatutako zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzean erroldatuta.

Hala ere, errenergua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

“Errenergua honen helburuen espiritu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errenergua salbuespena onartzea ala ez”.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko errenergua aplikatzea 1. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen diren zergadunei, zeren 2016ko urtarrilaren 1ean ez zirelako inoren ohizko etxebizitzak.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta interesatuei.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 27 de octubre de 2015, y a efectos del ejercicio de 2016, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal de habitantes que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Los contribuyentes que figuran en el expediente no están empadronados en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo: *“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.*

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto a los contribuyentes que figuran en el anexo 1, que, en relación diligenciada por el Secretario, constan en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2016 dichas viviendas no eran viviendas habituales de persona alguna.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los/as interesados/as.

5.- Hondakin bilketa tasa. Hobarien eskaerak. Alokairuan.

Udal honetan aurkeztu dira eskariak Hondakin bilketako tasen hobariak eskuratzeko, baina eskataileak ez dira etxebizitzaren jabe, baizik eta alokairuan daudenak.

Ilido horretatik, hondakin bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza fiskalean arautzen dira; hain zuzen ere, 2.1.6. eranskineko 9. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakin bilketa zerbitzuko tasaren %100eko hobaria izango dutela gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituen edo Tolosan errolatutako lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituztela egiaztatzen duten bizikide unitateek.

Hondakin bilketaren tasaren subjektu pasiboa etxebizitzaren jabea da. Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak honakoa dio:

“23. artikulua.

1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:

a) Udallerriaren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, foru arau honek 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

2. Zergadunaren ordezkioak hauexek izango dira:

a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.”

Aipatutakoa kontuan izanik eta ikusita espedientean azaltzen diren eskatzaileek ez direla etxebizitzaren jabeak, ezta ere hondakinen tasaren subjektu pasiboak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskatutako hobariak ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Hondakin tasaren kopuruaren zenbatekoa (106,75 €) dirulaguntza bidez ematea, eskatzaileen egoera ekonomikoa ikusita.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

6.- Sanjoanak. Egitaraua eta aurrekontua.

Kultur, Festak eta Gazteria batzarrak Sanjoanetako aurkeztu duen egitaraua eta aurrekontua ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurtengo Sanjoanak ospatzeko aurkeztutako egitaraua eta 114.834,28 €-ko aurrekontua onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

7.- Nerabeen balioanitzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza plegua.

2016ko irailaren 27an bukatzen da Maindi Elkartearekin Topagune Zerbitzua ustiatzeko sinatutako kontratua.

Gazteriko Teknikariak egindako txostenaren arabera, beharrezkoa da zerbitzua. Beraz, prozedura irekiko da zerbitzu hori ustiatzeko, horretarako egokiena izanik prozedura irekia, hainbat irizpide kontutan hartuko direlarik adjudikazioa egiteko.

Aipatzen da zerbitzuaren izen aldaketa planteatu dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, lehen Gazte-Topagunea zena, aurrerantzean Nerabeentzako Balioanitzeko Zerbitzua deituko dela.

Beraz, Baldintza pleguak aztertu dira, eta Kultura, Festak eta Gazteri aurtengo maiatzaren 11n datarekin emandako diktamena kontutan hartuz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo kontratazio espedientea onartzea: Nerabeentzako Balioanitzeko Zerbitzuaren kudeaketa kontratatzekoa.

BIGARRENA.- Zerbitzua kontratatzeko, prozedura irekiaz, deialdia egitea, baldintza pleguak onartuz.

HIRUGARRENA.- Dagokion gastua onartzea.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratista profilean argitaratzea dagokion iragarkia.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

8.- Bidaiaren txokoa.

Gobernu Batzarrak Nairobotarra elkarteari Errota eraikineko beheko lokala uztea erabaki zuen, baina, helburu horretarako egokiagoa zelakoan, elkarte berri bat sortu da: "Bidaiarien Txokoa Kultur Elkartea".

Beraz, Gobernu Batzar honek, Kultura, Festak eta Gazteria batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lokalaren zesia elkarte berri honen izenean egitea, 4 urterako. Hortaz, bertan behera uztea aurtengo apirilaren 25ean hartutako erabakia.

BIGARRENA.- Kultur departamentuari helaraztea erabakia kontratua gauzatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteri departamentuari eta interesdunari.

9.- Udaltzaingoko bost plaza betetzeko deialdia onartzea.

Udaltzain agenteen bost plaza betetzeko oinarriak dagokion batzordean aurkeztu ziren; besteen artean, hainbat puntu hobeto aztertzeke mahai gainean geratu ziren, hain zuzen ere hauexek:

* B+E karneta:kontuan izanda batetik lanpostu zerrendan betebeharrak hau ezarrita dagoela eta, bestetik, udaltzainburuarekin hitzegin ondoren, E karneta lanean aritzeko batzutan behintzat beharrezkoa izaten dela, oinarriak ukanbeharrak honekin bere horretan uztea erabaki da.

*Tratu txarren aurkako protokoloa: gaitegian puntu hau sartzea ere adostu da udaltzainburuarekin hitzegin ondoren.

* Lan poltsaren eraketari dagokionez, testu bat adostu da sindikatuarekin eta bere horretan onartzea proposatu da.

Hortaz, gaia aztertu ondoren, eta Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2016. urterako Lan Eskaintza Publikoa handitzea, hain zuzen ere:

Mota: Funtzionariak

Txanda: Librea

Ezaugarriak: C1, Administrazio Berezia, Zerbitzu bereziak.

BIGARRENA.- Bost udaltzain plaza betetzeko deialdia eta hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak onartzea.

10.-15/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **15/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **57.193,03€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **15/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Kondeaneko Aldapa 11-N Babes Ofizialeko 11 etxebizitza eraikitzeo obrak baldintza Pleguak.

Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 9an honoko erabakia hartu zuen:

“ Ikusita Kondeaneko Aldapako 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitzeo proiektuko obrak kontratatzeo hasi den espedienteo, eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea onartzea Kondeaneko Aldapako 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitzeke proiekturen obrak kontratatzeke. Kontratu honetan Udala enpresaria denez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga erregulatzen duen araudiko subjeto pasiboaren inbertsio-mekanismoa aplikatuko da.

Lizitazio-tipoa hau da: 955.818,40 euroko balio estimatua.

Adjudikazio modua prozedura irekiarena izango da.

BIGARRENA.- Baliatzea 955.818,40 €ko gastua (laurogeita hamabost mila zortzirehun eta hemezortzi euro eta berrogei zentimo).

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean et Kontratatzailearen profilean”.

Ikusita, lizitazio-tipoa oker zegoela eta, 955.818,40 € izan beharrean, 952.749,18€ko aurrekontua duela proiektuak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio-tipoa zuzentzea eta proiektuan jasota dagoen kopurua ezartzea, hau da, 952.749,18€.

BIGARRENA.- Baliatzen den kopurua ere zuzentzea, 952.749,18€ko gastua ezartzen delarik (laurogeita hamabi mila zazpirehun eta bederatzi euro eta hemezortzi zentimo) dagokion partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Zuzenketaren berri ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen profilean.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde